


2017 IKASTAROAK
Apirila / Ekaina


AHALDUNTZE ETA
PARTAIDETZAKO
UDAL ESKOLA **APUE**



Ayuntamiento de
Pamplona
Iruñeko Udala

zentro
Espacio colaborativo | Elkarlanean gunea





AURKEZPENA

Iruñeko Udalak Ahalduntze eta Partaidetzako Udal Eskola (APUE) abiatuko du, prestakuntza-gune bat, herritarren topaketa eta hausnarketarako.

Eskola hori aktiboa da, doakoa, etengabea, herritarrei eta udalerriaren beharrei irekia, herritarren partaidetzaren, berdintasunaren eta gizartearen ahalduntzearen inguruan.

APUEren hasierako programazioaren barruan, 13 ikastaro eskainiko dira 2017ko apiriletik ekainera bitarteko hiru hilabeteetan, hiru gai-ardatzetan banatuta:

1. Ahalduntze pertsonala


Ikaskuntza-guneak, parte hartzerako gaitasun pertsonalak eta sozialak garatzeko.

2. Taldeen eta erakundearen ahalduntzea.

Ikaskuntza-guneak, talde-jarduna bideratzeko, kudeaketa asoziatiborako, gure erakundearen barneko eta kanpoko komunikaziorako, taldeak dinamizatzeko, eta abarretarako.

3. Gizartearen eta komunitatearen ahalduntzea.

Ikaskuntza-guneak, sarean lan egiteko, elkarten arteko koordinaziorako, ekintza komunitariorako eta gizartearen eraldatzeko metodologia, teknika eta teknologien garapenerako.



APUEren ZERBITZUAK

APUEk prestakuntza- eta sustapen-zerbitzuak eskaintzen ditu.

Prestakuntza programak:

- Etengabeko prestakuntza (hiruhilekoa).
- Prestakuntza nahieran (gizarte-erakundeendako).
- Prestakuntza elkarteekin (prestakuntzarako diru-laguntzen bidez).

Sustapen ekintzak:

- Jardunaldiak, hitzaldiak, topaketa-foroak, etab. antolatzea.
- Boluntarioen, partaidetzaren eta solidaritatearen balioak hedatzea kanpainak eta erakusketak eginez, eta komunikabideekin elkarlanean arituta.
- Argitalpen propioak egitea.

ETENGABEKO PRESTAKUNTZA

Etengabeko prestakuntza-programa
2017rako

2. hiruilekoa

Apiriletik ekainera. Behin-
behineko izen-emateak eta
matkulazioak hiruilekoan zehar.

4. hiruilekoa.

Urritik abendura. Behin-behineko
izen-emateak eta matkulazioak
hiruilekoan zehar.

Ikastaroen formatua eta iraupena
honako irizpide hauekin bat
antolatuko da:

XS	2 - 6 ordu
S	8 - 16 ordu
M	18 - 40 ordu
L	45 - 80 ordu
XL	80 ordu baino gehiago

ARGIBIDEAK ETA IZEN-EMATEAK

Izen-ematea doan da.
Behin-behineko izena emateko epeak berariaz zehazten dira
ikastaroetako bakoitzean.

Telefonoz:

010 Herritarrendako Arreta Zerbitzuaren bitartez

Aurrez aurre:

Zentro, Elkarlaneko gunean. Kondestable Civivoxa.
Kale Nagusia 2, 2. solairua.

Hona jendaurreko ordutegia: astelehenetik ostiralera,
09:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

Ikastaro bakoitzean behin-behineko izena emateko epea amaituta,
eskatzaile guztiei jakinaraziko zaie onartuak izan diren edo ez.
Pertsona onartuek berretsi egin beharko dute parte-hartzea, behin
betikoz izena emanda.

Ikastaroen baterako eskainitako plaza baino eskakizun gehiago
balego, partaideak hautatzeko bidea ikastaro bakoitzean berariazko
irizpideen bitartez egingo da.
Aurrera begira, kontuan hartuko da ikastaroaren % 90era agertu ez
diren pertsonak.

APUE

Ahalduntze eta
Partaidetzako
Udal Eskola

emep@pamplona.es
www.participa.pamplona.es



Ayuntamiento de
Pamplona
Iruñeko Udala

Herritarren Partaidetzako,
Berdintasuneko eta Gizartea
Ahalduntzeko Alorra



Espacio colaborativo | Elkarlaneko gunea

Kondestable Civivoxa
Kale Nagusia 2, 2. solairua.
948 42 02 66

IKASTAROAK

2017ko APIRILETIK EKAINERA BITARTEKO

AHALDUNTZE PERTSONALA

- 1 / Komunikazio eraginkorra adimen emozionalean (10 ordu).
- 2 / Antzerkia gizartearen esku hartzeko eta gizartea ahaldundzeko tresna gisa (4 ordu).
- 3 / Lehen sorospenak (20 ordu).
- 4 / Ikus-entzunezko edukiak sortzea telefono mugikorrarekin (8 ordu).

TALDEEN ETA ERAKUNDEEN AHALDUNTZEA

- 5 / Community Managerrak hirugarren sektorean (erdi-presentziala. 45 ordu).
- 6 / Iruñeko Udalaren diru-laguntzak gazteendako jadu-erretarako (2 ordu).
- 7 / Bilerak dinamizatzea XXI. mendean (8 ordu).
- 8 / Bideratzea: prozesu kolektibo-erreparatuta (36 ordu).

GIZARTEAREN ETA KOMUNITATEAREN AHALDUNTZEA

- 9 / Jolasa eta dramatizazioa hezikidetzarako tresna gisa (8 ordu).
- 10 / Drogak eskura izanik ere, arazorik gabe bizitzea (gaztelaniaz. 15 ordu).
- 11 / Drogak eskura izanik ere, arazorik gabe bizitzea (euskaraz. 15 ordu).
- 12 / LGTBleko gorrotoa prebenitzea gazte eta nerabeen artean (8 ordu).
- 13 / Nola txertatu genero-ikuspegia gizarte-proiektuetan? (12 ordu).

1 / Komunikazio eraginkorra adimen emozionalean

S
10 ordu

Daniel Golemanek honela definitu du adimen emozionala: gure sentimenduak eta besteak antzemateko gaitasuna, eta motibatze eta geure buruarekin nahiz beste batzuekin ditugun harremanak modu egokian kudeatzeko.

Emozioak gizakien berezko osagai dira, kutsakorrak dira, aldez aurretik prestatzen gaituzte ekintzarako, eta gure harremanei eragiten diete. Joera biologiko horiek (gure historia pertsonal eta sozialaren arabera moldatuak) gidatzen dituzte hartzen ditugun erabakiak, eta ahalbidetu edo eragotzi gure ongizatea hobetu dezaketen zenbait ekintza.

Lantegi honen bidez emozioen jatorria ezagutuko dugu, gorpuzkak bidaltzen dizkigun mezuez jabetuko gara, emozioak kontrolatzeko teknikak arakatu ditugu, eta egoera emozional sakonei aurre egiteko eta emozioak adierazteko komunikazio-tresnak erabiliko ditugu. Hori guztia metodologia nagusiki praktikoa baten bidez, azalpen teorikoak banakako nahiz taldekako dinamikekin uztartuko dituen, ikasketa esanguratsuak lortzeko bide gisa.

EDUKIAK:

- Norberaren kontzientzia emozionala: emozioen elementu kognitibo, fisiologiko eta konduktualak.
- Emozioak kontrolatzeko estrategiak: emozioan oinarrituak eta gizarte-trebetasunetan oinarrituak.
- Gatazkak ulertzen: egoera gatazkatsuei aurre egiteko tresnak.
- Pertsonen arteko komunikazioa: oinarritzko gaitasunak emozioak adieraztean.

Nork emana:

Maria Méndez Barrio.
Coacha eta Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko prestakuntzarako laguntzailea

- **Hizkuntza:** Gaztelaniaz.
- **Data:** ekainak 16 eta 17.
- **Ordutegia:** ostiralean, 16:30etik 21:00etara, eta larunbatean, 08:30etik 14:00etara.
- **Lekua:** Zentro. Civivoxeko 5. aretoan (Kale Nagusia 2, 1. solairua). Izen-ematea: maiatzak 8 – 19.



2 / Antzerkia gizartearen esku hartzeko eta gizartearen ahalduntzeko tresna gisa

XS

4 ordu

Antzerkian hasteko ikastaroa, betiere hura ulertuta gizartearen esku hartzeko eta banaka nahiz kolektiboki ahalduntzeko tresna gisa, interesdunek probatu ahal izateko eta ikus dezaten —behar eta interes komunak partekatzeaz gain— ea hori izan litekeen bilatzen ari direna. Bizipenetan oinarritutako lantegia, non ongizate-gune bat sortuko dugun ezagutu, jolastu eta libreki gozatu ahal izateko, betiere taldeko lagun bakoitzak ahotsa izan eta ikusia izanen delarik. Antzerki-teknikak, “zapalduaren antzerkia” izenekoari, gizarte-antzerkiari, antzerki terapeutikoari eta antzerki ohikoagoari lotutako zenbait metodologiari jarraiki, baita beste ariketa, dinamika eta jolas batzuk ere, betiere konfiantza gune bat sortzeko asmoz, non gero identifikatu ahalko ditugun taldean sortzen diren intereseko gaiak eta horietan sakondu, hausnarketa, elkarriketa eta eztabaida sustatze aldera, bizitzako hainbat egoerari aurre egiteko erabil daitezkeen beste modu batzuk “probatuta”.

EDUKIAK:

- Berotzeko eta erlaxatzeko ariketak eta bestelakoak: artikulazioak eta muskulua, mugimendua, desmekanizazioa, gorputz-

entrenamendua, ahoskera, bost zentzumenen lanketa, kontaktua, arreta, adierazpena, emozioa eta konfiantza.

- Mugimendua, jolas adierazkor eta dramatikoak.
- Inprobisazioa.
- Zapalduaren antzerkiko tekniken hastapenak (testinguru batzuetan emakume zapalduen antzerkia izena dute). Irudi-antzerkiaren teknikak, A. Boal-en Aktore eta aktore ez direnendako jolasak liburutik.
- Eszena bat edo batzuk eta esku-hartzeak sortzea.

Nork emana:

Eider Sainz de la Maza.

Filologia ingelesean lizentziaduna eta masterduna espainiar eta latinoamerikar literaturan. Arte Dramatikoko ikasketak 2010ean amaitu zituen Nancy Tuñón - Jordi Oliver eskolan eta zapalduen antzerkiko prestakuntza Forn de Teatre Pa² tothom eskolan.

- **Hizkuntza:** gaztelaniaz.
- **Data:** maiatzak 18
- **Orduetgia:** 17:00 – 21:00
- **Lekua:** Zentro. 5. aretoa. Kondestable Civivoxa (Kale Nagusia 2, 1. solairua)
- **Izen-ematea:** apirilak 26 – maiatzak 10



3 / Lehen sorospenak

M

20 ordu

Badator eguraldi ona, eta harekin batera natur-irtenaldiak, txangoak, kanpamentuak, eta abar. Irtenaldi horiek modu ziurrean egiteko behar diren ezagutzak eskuratzeko asmoz, ikastaro hau bereziki zuzenduta dago naturan jarduerak antolatzen dituzten kolektiboetako gazteei edo gazte-elkarteei, eta modu erraz eta praktikoan heltzen die lehen sorospenen eduki esanguratsueni, ingurune naturalean sor daitezkeen egoerak prebenitzeko eta horietan artea emateko.

EDUKIAK:

- Biktimak laguntzea ingurune naturalean
- Biziraupen unibertsalaren katea
- Larrialdi batean jarraitu beharreko jarraibideak: BAS jokamoldea
- Oinarrizko bizi-euskarria. Algoritmo unibertsala. Jarduteko segida.
- Alboka jarri segurtasunagatik.
- Biktima premiaz mugitu eta artatzea
- Bigarren mailako miaketa

- Lehen sorospenak, gorputz arrotz batek arnasbidea oztopatzen duenean, eta hauek sendatzeko: odoljarioak, zauriak, erredurak, traumatismoak, animalien ziztadak eta hozkadak, intoxikazioak eta termorregulazio-nahasmenduek eragindako larrialdiak.

- Botikina.
- Prebentzioa. AVA jarrera

Nork emana:

Gurutze Gorria (Iruña)

- **Hizkuntza:** gaztelaniaz.
- **Data:** apirilak 18 – 21
- **Orduetgia:** asteartetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara
- **Lekua:** Iruñeko Gaztediaren Etxea (Zangoza k. 30)
- **Izen-ematea:** apirilak 3 – 10



4 / Ikus-entzunezko edukiak sortzea telefono mugikorrarekin



8 ordu

Telefono mugikorrarekin egindako ikus-entzunezko edukiak sortzeko ikastaro honek — ekintzaile sozial eta digitalei zuzenduak— xede du parte-hartzaileek ikas dezatela telefono mugikorra erabiltzen haien jardueren komunikazio-tresna gisa, horrela istorioak kontatu ahal izan ditzaten ekintzak non gertatu eta handik bertatik denbora errealean —edo ia—. Lantegiaren parte teorikoan adibideak, aholkuak eta zenbait aplikazio emanen dira ezagutzera; parte praktikoa, aldiz (% 50 baino gehiago), ikasleak — bideratzailearen gidaritzapean— telefono mugikorrekin bideo bat sortzeko gai izanen dira.

EDUKIAK:

- Mugikorrean kontsumitzeko edukiak
- Mugikorrekin sortutako edukiak
- MoJoKit
- Mugikorrekin sortutako bideoen adibideak; bideoak mugikorrarekin grabatzeko aholkuak; Facebook Live bidez igortzeko aholkuak (zer egin eta zer ez)
- Bideo horizontala eta nola grabatu; bideo bertikala eta nola grabatu, eta edizioari buruzko oinarriko nozio batzuk, gure mugikorrarekin bideo bat sortu ahal izateko adinak.

Nork emana:

Ana López

Kazetari multimedia eta mugikorra, hamabost urte baino gehiagoko esperientziarekin Nafarroako eta Espainiako hedabideetan. Multimedia prestakuntza Kaliforniako Unibertsitatean, Berkeleyn eta Columbiako Unibertsitatean, New Yorken

- **Hizkuntza:** gaztelaniaz.
- **Data:** apirilak 24 eta 26
- **Ordutegia:** 17:00 — 21:00
- **Lekua:** Zentro. 4. aretoa. Kondestable Civivoxa (Kale Nagusia 2, 1. solairua)
- **Izen-ematea:** apirilak 3 — 18



5 / Community Managerrak hirugarren sektorean



45 ordu erdipresentziala

Entitate askok IKT tresnak baliatzen dituzte giza-mobilizazioarako kanpainak, bazkideak erakartzekoak, baliabideak bilatzekoak, etab. egiteko. Gure mezuak helarazten jakitea eta bide egokiak erabiltzea funtsezkoa da gizarte-entitateek eta elkarteek ematen dituzten zerbitzuen inpaktua eta kalitatea hobetzeko.

EDUKIAK:

- Gizarte-entitateen Komunikazio-plana
- Community Managerraren figura
- Tresnak eta estrategiak Sare Sozialen zerbitzura
- Email marketina eta buletin elektronikoak
- Berezko legeria, Community Management esparruan
- Web posizionamendua (SEO)

Nork emana:

Adrián Aguayo Llanos

Pedernal, Educación y Tecnología, Gestión y Participación Social Fundazioa

Javier del Cobo Latre

Pedernal, Educación y Tecnología.

Virginia Moraleda

SocialCo.

- **Hizkuntza:** gaztelaniaz.
- **On line prestakuntzaren datak:** apirilak 21 — ekainak 2 (6 aste)
- **Aurrez aurreko prestakuntzaren datak:** apirilaren 21a, maiatzaren 12a eta 26a (3 saio)
- **Ordutegia:** 16:30 — 20:30
- **Lekua:** Zentro. 4. aretoa. Kondestable Civivoxa (Kale Nagusia 2, 1. solairua)
- **Izen-ematea:** apirilak 3 — 12.



6 / Iruñeko Udalaren diru-laguntzak, gazteendako jardueretarako

XS

2 ordu

Diru-laguntza publikoak dira elkarteen finantzaketa-iturri nagusietako bat. Alabaina, sarritan diru-laguntzen deialdietan erabilitako terminoak horiek ulertzeko oztopo dira, eta, horrenbestez, diru-laguntza bat lortzeko baldintza guztiak betetzeko. Ikastaro honetan 2017. urtean gazteendako jarduerak egiteko Iruñeko Udalaren diru-laguntzen deialdiaren eduki eta berritasunen berri emango da, modu argi eta errazean, jende orok errazago uler dezan.

EDUKIAK:

- Argibideak ematea, modu argi eta errazean, gazteei, eta gazte-talde zein -elkarteei, 2017an gazteendako jarduerak egiteko diru-laguntzen deialdiaren eduki eta berritasunei buruz.
- Aholkularitza gazteei eta gazte-talde zein -elkarteei diru-laguntza bat eskatzean aintzat hartu beharreko konturik ohikoenen inguruan.
- Gazteek eta gazte-talde zein -elkarteei arlo horretan dituzten zailtasunak azaltzeko.
- Ideiak elkarrekin trukatzeko eta gazte-talde zein -elkarteen artean, eta horien eta Administrazioaren artean.

Nork emana:

Ana Belén Albero Díaz
Zuzenbidean lizentziaduna; masterduna irabazi asmorik gabeko entitateen zuzendaritza-kudeaketan; abokatua; Gaztediaren Etxeko Asoziazionismo-Aholkularitza eta Herriarren Partaidetzako Zentroaren Aholkularitza Juridikoa

- **Hizkuntza:** gaztelaniaz edo euskaraz, eskaeraren arabera.
- **Data:** maiatzak 25.
- **Ordutegia:** 18:00 – 20:00.
- **Lekua:** Gaztediaren Etxea (Zangoza kalea, 30).
- **Izen-ematea:** ez da beharrezkoa aldez aurretik izena ematea; leku guztiak bete arte.



7 / Bilerak dinamizatzea XXI. Mendean

S

8 ordu

Jabetzen ari gara erakunde eta lantaldeetan taldean lan egiteko eta hobeto komunikatzeko modu eraginkorrak behar ditugula. Zentzuzko erabakiak hartzen eta gatazkei guztien parte hartzearekin aurre egiten lagunduko diguten mekanismoak topatu behar ditugu. Aitortzen dugu gure lan egiteko moduak eta sustatzen dugun lidergo-estiloak eragina dutela gure emaitzetan, eta horiek zehaztuz gure emaitzetan, hori dela eta, beste era bateko elkarrizketak sortu behar ditugu, beste modu batean, benetako elkarrizketa-sareak sortzen lagunduko duten tresna berriekin, baita ere, lagun askok osatutako talde eta kolektiboetan.

EDUKIAK:

- Bilera eraginkorren elementuak: aurretik, bitartean eta ondoren.
- Bileren eginkizuna, xedea eta eraginkortasuna.
- Gure bileretan ekiditekoak diren alderdiak, eta sustatzekoak.
- Lantaldeen eta talde handien elkarrizketak dinamizatzeko prozesuak, metodoak eta praktikak: zirkulua, ikusizko arakatzea, uztza, munduko

kafea, gune irekia eta ekintza egiteko kafea.

- Bileretan parte hartzen duten lagunek gara ditzaketen rolak.
- Bileraren moderatzailearen eginkizunak: ezagutzak, jarrerak eta gaitasunak.
- Moderatzailearen funtzioak eta egitekoak.

Nork emana:

Ede Fundazioko erakunde eta profesionalen Garapenerako Alorra

- **Hizkuntza:** gaztelaniaz.
- **Data:** maiatzak 25
- **Ordutegia:** 10:00 – 14:00 eta 17:00 – 21:00.
- **Tokia:** Zentro. 4. Aretoa. Kondestable Civivoxa (Kale Nagusia 2, 1. solairua)
- **Izena emateko data:** apirilak 10 – 21



8 / Bideratzea: prozesu kolektiboari erreparatuta

M

36 ordu

Gero eta maizago, elkarrekin lan egitea erabakitzen dugu, erabakitze guneak, erantzukizuna, ekintza eta emaitzak partekatzea bilatzen duten kolektiboetan.

Kooperatibak, elkarteak, fundazioak, enpresa partizipatiboak, eta abar. Erakunde horien egitura bat datoz horietan parte hartzea animatzen duten printzipioekin eta balioekin. Era berean, zenbait gaitasun eta trebetasun berri eskatzen dituzte, prestakuntza-programetan gutxi garatu direnak. Sarrerako modulu hauek xede dute parte-hartzaileak hurbiltzea "Bideratzea" izeneko terminoan dauden tresnetara. Diziiplina berritzailea da, taldeak eta erakundeak kudeatzea xede duena, non hainbat diziplinatan biltzen baitira erakundeetako kudeaketa kolektiboaren inguruko jakintzak.

EDUKIAK:

- Taldea eta taldearen barne-sistema. Taldeak, erakundeak eta bideratze-prozesua: jorratzen ditugun elementuak taldekako lana edo funtzionamendua aintzat hartzean. Talde baten bilakaera, horren bizi-zikloa. Prozesua, helburua, kezkak, mugak.

- Bideratzea: zer den eta nola egiten den talde-jarduna bideratzeko
- Gatazken kudeaketa: sarrera bat gatazkak ulertzeko, norbanakoan, pertsonen, ikuspuntutik. Gatazka-tipologiak
- Egitura: proiektuaren ardura. Egitura ezaren ondorioak: naturatik ikasi. Talde-boterearen gunea: erabakiak hartzea. Erabakiak hartzeko moduak.

Nork emana:

Mabel Cañada eta Mauge Cañada
Lifaceko kideak (Lidergoa lortzeko Bideratzea eta Adostasuna lantzeko nazioarteko institutua) eta talde komunitarioen bideratzaileak, 40 urtez.

- **Hizkuntza:** gaztelaniaz.
- **Data:** apirilak 21 eta 22 — maiatzak 12 eta 13 — ekainak 9 eta 10
- **Ordutegia:** ostiralean, 10:00etatik 14:00etara, eta 16:00etatik 20:00etara. Larunbatetan, 10:00etatik 14:00etara
- **Lekua:** Zentro. 5. aretoa. Kondestable Civivoxa (Kale Nagusia 2, 1. solairua)
- **Izen-ematea:** apirilak 3 — 12



9 / Jolasa eta dramatizazioa hezkidetzarako tresna gisa

S

8 ordu

Ikastaro honetan, zailtasunak jartzen dira gizarteratze prozesuan helarazten diren genero-rolak eta -estereotipoak, eta proposatzen ditugue horiekin jolastea, eta horretarako dinamikak taldera egokitzen dira, eta hausnarketa, lankidetzak, autoestimua eta jokabide onak sustatzen dira. Hezkidetzak-tresnen bidez sustatuko da gazteen arteko harremanen inguruko azterketa, baita ikuspegi kritiko bat ere kontsumitzen dituzten ikus-entzunezko erreferente eta diskurtsoei buruz.

EDUKIA:

- Sentsibilizatzea hezkidetzak duen garrantziaren inguruan, berdintasunezko gizarte bat lortze aldera.
- Gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak genero-sozializazioko prozesuen emaitza direla ikusaraztea.
- Dibertsitatea balio gisa ezagutu eta aitortzea norberaren hazkunde pertsonala lortze aldera.
- Maskulinitate eta feminitatearen eredu hegemonikoei buruz hausnartzea.
- Gatazken konponketa, lankidetzak eta jokabide onak lantzea.

- Gure jarrerak kolokan jartzea.
- Jolasa, dramatizazioa eta eztabaida izanen dira lanerako tresnak, eta horien bidez landuko dira planteatutako kontzeptuak, bizipenetan oinarrituta, eta saioetan asertibitatea, empatia eta partaidetza ere sustatuko dira.

Nork emana:

Iñigo Aranbarri Larrañaga
Antzerki-aktorea, hezkidetzan prestatzailea arte eszenikoak baliatuta.

- **Hizkuntza:** Gaztelaniaz
- **Data:** maiatzak 15, 17, 22 eta 24
- **Ordutegia:** 18:00 — 20:00
- **Lekua:** Zentro. 4. aretoa. Kondestable Civivoxa (Kale Nagusia 2, 1. solairua)
- **Izen-ematea:** apirilak 18 — 28



10 / Drogak eskura izanik ere, arazorik gabe bizitzea.

Arriskuak murrizteko bideratzaile-informatzaileendako ikastaroa

S

15 ordu

Gure munduan drogarik bada, izan, eta fenomeno soziala dugunez gero, funtsezkoa da horri gazteekin heltzea eta haiekin jorratzea. Zer nolako drogak daude? Zer nolako harremanak ditugu drogekin? Zer nolako arrisku eta ondorioak ditu? Zer nolako estrategiak daude arriskuak urritzeko? Horregatik, ikastaro hau bereziki gazteei zuzentzen zaie, bai eta gai honekiko interesa eduki eta gazteen gaietan esku hartzeko interesa duten elkarte eta kolektiboei ere. Ikastaroaren xedea da pertsona horiei eskaintzea ezagutzak, baliabideak eta tresnak kontsumoaren gaia gazteekin jorratzeko, norberaren gaitasunak hezita arriskuak murrizte aldera.

EDUKIAK:

- Drogen kontsumoaren fenomenoaren epistemologia.
- Fenomenoaren historia.
- Errealitatearen historia, diagnostikoaren abiapuntu.
- Drogaren definizioa eta drogen sailkapena.
- Drogarekiko harreman mota desberdinak.
- Drogarekiko harremanaren

baldintzatzaileak: pertsona, testuingurua eta substantzia.

- Drogen kontsumoarekin erlazionatutako arriskuak.
- Nola joka dezakegu errealitate horren aurrean?
- Zer da benetan kezkatu behar gaituena?
- Gozamen eta arriskuen erabileraren estrategia. Kontsumo arduratsua
- Maila pertsonalean zein talde mailan jokatzeko tresnak
- Kasu praktikoak, drogen kontsumoaren fenomenoan eta gazte eta nerabeekiko esku-hartzean sakontzeko.

Nork emana:

Itziar Martínez
Hegoak Elkarte

- **Hizkuntza:** gaztelaniaz.
- **Datak:** apirilak 25 eta 27, maiatzak 2 eta 4, eta maiatzak 9 eta 11
- **Ordutegia:** astearte eta ostegunetan. 18:00 – 20:30
- **Lekua:** Iruñeko Gaztediaren Etxea (Zangoza k. 30)
- **Izen-ematea:** apirilak 3 – 19



11 / Drogak eskura izanik ere, arazorik gabe bizitzea.

Arriskuak murrizteko bideratzaile-informatzaileendako ikastaroa

S

8 ordu

Gure munduan drogarik bada, izan, eta fenomeno soziala dugunez gero, funtsezkoa da horri gazteekin heltzea eta haiekin jorratzea. Zer nolako drogak daude? Zer nolako harremanak ditugu drogekin? Zer nolako arrisku eta ondorioak ditu? Zer nolako estrategiak daude arriskuak urritzeko? Horregatik, ikastaro hau bereziki gazteei zuzentzen zaie, bai eta gai honekiko interesa eduki eta gazteen gaietan esku hartzeko interesa duten elkarte eta kolektiboei ere. Ikastaroaren xedea da pertsona horiei eskaintzea ezagutzak, baliabideak eta tresnak kontsumoaren gaia gazteekin jorratzeko, norberaren gaitasunak hezita arriskuak murrizte aldera.

EDUKIAK:

- Drogen kontsumoaren fenomenoaren epistemologia.
- Fenomenoaren historia.
- Errealitatearen historia, diagnostikoaren abiapuntu.
- Drogaren definizioa eta drogen sailkapena.
- Drogarekiko harreman mota desberdinak.
- Drogarekiko harremanaren

baldintzatzaileak: pertsona, testuingurua eta substantzia.

- Drogen kontsumoarekin erlazionatutako arriskuak.
- Nola joka dezakegu errealitate horren aurrean?
- Zer da benetan kezkatu behar gaituena?
- Gozamen eta arriskuen erabileraren estrategia. Kontsumo arduratsua
- Maila pertsonalean zein talde mailan jokatzeko tresnak
- Kasu praktikoak, drogen kontsumoaren fenomenoan eta gazte eta nerabeekiko esku-hartzean sakontzeko.

Nork emana:

Itziar Martínez
Hegoak Elkarte

- **Hizkuntza:** euskaraz.
- **Datak:** Maiatzak 16 eta 18, maiatzak 23 eta 25, eta maiatzak 30 eta ekainak 1.
- **Ordutegia:** astearte eta ostegunetan. 18:00 - 20:30.
- **Lekua:** Iruñeko Gaztediaren Etxea (Zangoza k. 30).
- **Izen-ematea:** apirilak 3 – 19.



12 / LGTBfobia prehenitzea gazte eta nerabeen artean

S

8 ordu

Ikastaroa bi saiotan emango da, horietako bakoitzean eduki hauek jorratuko direlarik. Lehen saioan afektibitate-, sexu- eta genero-aniztasuna nola ulertzen dugun hausnartuko dugu, eta gure ikuspegia zabaltzen saiatuko gara. Bigarren saioan garrantzitsuagoa izango da gazte eta nerabeen esperientzia, bai eta gure harremana beraiekiko.

CONTENIDOS:

- Afektibitate- eta sexu-aniztasunaren inguruko ezagutzetan sakontzea.
- Ulertzea, batetik, generoak gure gizartearen duen garrantzia, eta, bestetik, hetero-arauarekin nola egituratzen den.
- LGTB eskubideen aldeko historiako mugarrak eta borroka horretako korrante nagusiak ezagutzea.
- Homofobiari buruzko zenbait alderdi eztabaidatu eta horietan sakontzea: haren funtzionamendua, haren jatorria, eta eragiten gaituen modua. afecta.
- Afektibitate-, sexu- eta genero-aniztasunari dagokionez ideiak konpartitzea eta ezagutza sortzea, gure hezkuntza-jarduna hobetzeko.
- Homofobiaren nondik-norakoetan

sakontzen ahalagintzea eta ukertzea zer garrantzia duen horretan kidego-nahiak.

- Norberaren esperientzia pertsonala gure hezkuntza-jardunari buruz hausnartzeko tresna gisa baliatzea. práctica educativa.
- Hizpide hartzea zenbait afektibitate-, sexu- eta genero-adierazpenentzako gune seguruak sortzeko estrategia, praktika eta material egokiak.

Nork emana:

Ametz Jordan Arrieta
Lizentziaduna Pedagogian, eta masterduna "Ikasketa Feministak" alorrean; prestatzailea da hezkidetzeta eta aniztasun alorrean, Arremanitz kooperatibaren bitartez

- **Hizkuntza:** Euskaraz.
- **Datak:** Maiatzak 9-11
- **Ordutegia:** 17:00 - 21:00
- **Lekua:** Zentro. 4. aretoa. Kondestable Civivoxa (Kale Nagusia 2, 1. solairua)
- **Izen-ematea:** apirilak 10 – 28



13 / Nola txertatu genero-ikuspegia proiektu sozialetan?

S

12 ordu

Ikastaro honen xedeak dira parte-hartzaileak gaitzea genero-ikuspegia proiektu sozialen zikloko fase guztietan txertatu dezaten, eta horiei gizarte-errealitatea aztertzekeo tresnak zein genero-teoriari buruzko oinarritzko ezagutzak ematea. Metodologia teoriko-praktikoa proposatuko da. Zedarritutako edukiak hausnarketa kolektibora bideratuko duten ariketen bidez jorratuko dira, hausnarketa horretatik abiatuta teoria azaltzeko, eta hortik berriro praxira jotzeko.

EDUKIA:

- I. MODULUA: Berdintasunaren estalkia desagiten: gizartearen errealitatea genero-ikuspegiarekin aztertzea
- II. MODULUA: Berdintasunik ezaren arrazoiak: Genero Teoriaren kontzeptu-gakoak
- III. MODULUA: Betaurreko moreak eta genero-ikuspegia
- IV. MODULUA: Gizartearen errealitatea soziala genero-ikuspegitik diseinatu, proiektatu eta eraldatzea: genero-ikuspegia proiektu sozialetan txertatzea

Nork emana:

Susana Carramiñana García
Lizentziatua Soziologian. Eragilea emakume eta gizonezkoen berdintasunaren alorrean. Prestatzailea genero-alorrean, eta berariaz gizarte-erakundeentzako genero-ikuspegidun proiektu sozialen diseinuan

- **Hizkuntza:** Gaztelaniaz.
- **Datak:** Ekainak 16 eta 17
- **Ordutegia:** Ostiralean (17:00 - 21:00) eta larunbatetan (10:00 - 14:00 eta 17:00 - 21:00).
- **Lekua:** Zentro. 4. aretoa. Kondestable Civivoxa (Kale Nagusia 2, 1. solairua)
- **Izen-ematea:** maiatzak 8 – 19.